

## ezagutzen al duzu Donostia?


### Amara baserria

Plano zaharretan azaltzen denez, gaur Amara Zaharreko Santiago eliza dagoen orubean kokatzen zen Amara baserri zaharra. Mende hasierarako desagertu zela dirudi, eta bere orubean auzo-garbigilekuak eraiki ziren, eta azkenik, eraikuntza bera birmoldatuz, Santiago eliza. Badirudi Beloka jauregiaren (gaur fraile Marianisten ikastetxea) inguruan santu honen kapela txiki bat zegoela eta hortik hartu zuela elizak izena.

Amara baserriak eta bere inguruko Arroka, Andoizena eta Unaene baserriek auzotxo bat osatzen zuten Urumea ibaiaren ertzean (garai hartan «Amarako erriyua» eta «Amarako plaia» deitzen zen Urumea ibaiaren inguru hau). Auzo honetan bazen portutxo bat, Amarako Portua edo Arrokkako portua deitzen zena.

Eta, «Amara» izena non-

dik datorren? Entzuna dut «amarra» espainol hitzaren desitxuraketa bat dela, baina nire ustez hitz gaskoina da. Gaskoineraz, «Amarè» edo «Amaredà» hitzek «eguzkirik gabeko lurra», «zingiratsua», «ez emankorra» esan nahi dute, eta horrelako inguru bat zen hain zuzen ere Amara baserria kokatzen zen lekua.



Roxali

Santiago eliza Amara Zaharrean

JOSU TELLABIDE

## Donostiako kantutegia



J.I. ANSORENAK proposatua

### Goizian sartu

Goizian sartu tabernera eta ateratzen naiz azkena, egun guztian zurrutean eta ez zait betetzen barrena. Ai hau edari zoragarria, neri gustatzen zaidana! Maria Jesus, bihotzekoa, bete hamaseigarrena.

Donostiako soziedadetan asko eta euskaraz abesten zenean, hau ez zen faltatzen gehienetan. Kañoietan izenekoan omen zen bereziki maitea, gure aitona Isidro Ansorenari (1892 - 1975) sinistuz gero. Antzeko asko kantatu izan dira Euskal Herriko beste lekuetan. Egilearen arrastorik ez.

## erein argitaletxea

Euskal kulturaren zerbitzuan

Tolosa Etorbidea, 107 - 20009 DONOSTIA

Telf.: 21 83 00 - 21 82 11

# HITZEZ



### UDA 94 MATRIKULA ZABALIK

• Barnetegiak URRESTILLAN; maila guztiak; 3 eta 5 ordutako ikastaroak; uztaila -abuztua-iraila.

• Umeentzat ikastaro bereziak.

• Errekuperaketak UBI eta B.B.B

Kolon Pasealekua, 5 behea  
Tfnoa.: 27 81 55 DONOSTIA

## LASARTE taberna

- Gosariak
- Pintxoak
- Menuak

Elkano 7  
DONOSTIA